ew

Soziologia: gizarte zientzietako zientzia da.8 Gizakiok egiten ditugun ekintzak aztertzen dituen zientzia; honi esker, gizarte ereduak konparatu ahal dira. 8 Gizartearen osagaiak, prozesuak eta bestelakoak dira. 8 Soziologia, gizartearen mamia da. 8 Gauzak ez dira ikusten ditugun moduan. 8 Soziologiak egiten duena da, definizio ofizialaren atzekoa aztertu. 88 Gizartea eraikitako zerbait da, eta eraikitako zerbait denez, aztertzeko objektua da. Gizartea pertsona multzo bat da, eta multzo honek sortzen duen kultura da. Gizarte barruan dauden multzoak gizartea osatzen dute. 8 Soziologiak, pertsonak baldintzatzen ditu. Gure jarduerak baldintzatuta daude, eta baldintza horiek gizarteak markatzen ditu. Gizartean elementuak aldatzen direnean, gizarteak baditu errekurtsoak arazo horietatik irteteko. ?Gizarte kontrola eta gizarte baldintzatua? Gizarteak helburu nagusi bat du: pertsonen batasuna lortzea; eta horretarako, hainbat mekanismo ditu. 8 Sozializazioa jaiotzen garenetik hasten da, datuak bereganatuz; ondorioz, gizarteko legeak onartzen ditugu, legitimatzen dugu. Eskolak paper nagusi bat du; irakasleak gizartearen isla dira, etorkizuneko pertsonek gure berdin egin dezaten. Gizartea eta kultura ondo legitimatzen bada, ez da kontrol soziala martxan jarriko. Baina pertsona batek arau batekin bat ez badator, gizarteak baditu hainbat mekanismo batasuna lortzeko. 8 Ez dago gida libururik sozializazio ona edo txarra bereizten duena. Gizarteak aurre egitearen ondorioz, kanpo kontrol informalak sortu dira. Baina gizarte tradizionala bada, kanpo kontrol informala besterik ez du. 8 –Gizartearen kontrol mekanismoak (betetzen ez diren ekintzak zuzentzeko): 1. Barne kontrola: sozialismoa; eta gizartearen balore eta arauen barneratzea. 2. Kanpo kontrolak: sariak eta zigorrak; formala (legea, polizia “multa”), informala (familia, eskola “bronka”). 8 –Zigor motak: 1. Naturaz gaindikoak: batez ere gizarte tradizionaletan; jainkoak, sorginak ezarritako zigorra. 2. Ekonomikoak: multa, desauzioa. 3. Fisikoak: jipoitu, eskua moztu. 4. Soziala: kritikak, baztertzea. 8 ?Gizarte estratifikazioa? Gizartea geruza edo estrato desberdinez osatuta dago; hau da, gizarte bakoitzean kapa edo estrato desberdinak daude. Hiritarrok kokapen desberdina dugu mailakatze horretan, kokapen sozialaren ondorioz. Kokapen sozialak aukera eta egoera desberdinak ditu. Lanak markatzen du zer nolako kokapena dugun sailkapen hortan; geroz eta lan hobeagoa, ingreso gehiago eta sailkapen hobea. –Gizarte desbedintasunak: edozein gizartetan gertatzen dira eta beti edozein gizarte eredutan. Desberdintasunaren ondorioz, kapa edo estrato desberdinak daude. Unibertsala da. 1. Industriaurreko gizartea: naturala da (gure gainetik dagoen zerbaitek agintzen du; jainkoak, naturak); onartua izan behar zen (gure gurasoak morroiak baziren, gu ere izan behar gara); eta ez dago gizarte mugikortasunik. 2. Gizarte modernoa: ez da onartzen, ez ditugu gizarte desberdintasunak onartzen, nahiz eta existitu (gure gurasoek ez zuten ikasketarik, baina, guk zergatik ez); eta mugikortasun soziala garatu da, aurrekoan gertatzen ez zena orain bai, mugikortasun sozial baten bila gabiltza. –Giza mugikortasuna: gizarte modernoetan estratuz edo mailaz aldatzeko aukera dago. 1. Bertikala eta horizontala: bertikala, mailaz igo edo jaitsi; horizontala, maila berean gertatzen den aldaketa (irakasle izan hemen, Londresen… baina irakasle izaten jarraitu). 2. Belaunaldi artekoa eta belaunaldi propioa: pertsona baten bizitzan gertatzen dena (ordezkari bezala hasi eta zuzendari bezala amaitu); eta, aurreko belaunaldiarekin konparatuz gertatzen dena. 3. Estrukturala eta zirkularra: faktore estrukturalak eraginda (no depende de ti “gerra”); eta bakoitzak erabilitakoaren ondorioz (guk magisteritza ikastea erabaki dugu). 8 ?Erakundeak? Gizarte ekintzen multzo konplexua. Erakundeak ekintza sozialak bideratzen ditu; senak edo instintoak animali ekintzak bideratzen dituelako. 8 Irakasleak, gelak eta familiak hezkuntza sistema osatzen dute. 8 Sozializazioak egiten duena da, gizarteak behar dituen pertsonak sortu; eta hauek, sozializazioari esker, balore eta arauak ikasi eta propio egiten dituzte. Ez dugu pentsatzen, egin egiten dugu. Ez dago manualik, ez dago gida libururik. Sozializazioari esker, gizartea ez dugu kartzela bezala ikusten. 8 Sozializazioa, identifikatzea eta barneratzea da, prozesu jarraia da (bizitza osoan zehar), ezinbestekoa da pertsona eta kulturarentzat. Sozializazioarekin gizarte kontrolak murrizten dira eta, testu libururik ez dagoenez, bakoitzak bere erara sozializatzen ditu pertsonak. 8 Sozializazioari esker, rolak ulertzen eta gureganatzen ditugu. Rolak,portaera

tipifikatuaren eredu ezberdinak dira. Gu, gizartearen aktore moduan aritzen gara. 8 Sozializazio prozesuan, ikaslea izaten, lagun izaten ikasten dugu, rol desberdinak ikasten ditugu.